


ARGUDIATEGIA





ARGUDIATEGIA

Euskaraldiaren bigarren edizioan entitateek rol garrantzitsua izango dute, eta haien zuzendaritza edo arduradunen inplikazioa beharrezkoa izango da. Horretarako, Euskaraldiak, eta bestela esanda, euskara beraien kudeaketan txertatzeak ekarriko dizkien onurak ezagutaraztea eta transmititzea komeni da.

Hori dela-eta, txosten honetan jaso ditugu administrazio publiko, elkarte, erakunde pribatu zein establezimenduetako arduradunei zuzendutako Euskaraldiaren aldeko argudioak.

Argudio-sorta hau entitate mota guztietarako prestatu dugu, nahiz eta horietako batzuk kutsu enpresariala izango duten, eta beste batzuk alderdi sozialagoa azpimarratuko duten. Edukia berbera izango da, baina fokoa, hartzailea izango da ezberdina (elkarteko zuzendaria, dendaren jabea, enpresako zuzendaria, udaleko politikaria, etab.).

Dena dela, zerbitzuaren kalitatea, barne-kohesioa, gizarte-erantzukizuna, kideen gogobetetzea... bezalako kontzeptuek entitate mota guztietan erabil litezkeen abantailak barne hartzen dituzte.

Oro har esan dezakegu Euskaraldiak entitateen barruan jada badagoen errealitate bat modu kontzientean eta planifikatuan kudeatzeko eta entitatearen alde erabiltzeko aukera eskaintzen duela.

ARGUDIO OROKORRAK

Euskaraldia, mugimendu bat

Euskaraldiak mugimendu handia sortu zuen 2018an, Euskal Herriko 225.000 lagunek hartu zuten parte ariketan. Entitateetako hainbat partaidek parte hartuko zuten 2018ko ekitaldian belarriprest eta ahobizi gisa (langileak, elkarteko bazkideak, dendaria, etab.); eta entitatara hurbildutako hainbat pertsonen ere rol bertsuak hartuko zituzten (gurasoak, kideak, bezeroak...). Beraz, mugimendu honekin bat egiteak badu balioa, gizarteak modu aktiboan parte hartuko baitu.

Hizkuntzen kudeaketak duen balio estrategikoa

Garai batean, egun estrategiko diren entitate barruko hainbat alor (giza baliabideak edo kalitatea, esate baterako) ez ziren modu kontziente eta sistematikoan kudeatzen, eta gaur ia ezin dugu enpresa bat ulertu, eta, kasu askotan, ezta bestelako edozein entitate mota ere, kalitate edo giza baliabideetako departamenturik gabe. Horrela, hainbat entitate hasi dira hizkuntzen gaian ez inprobisatzen eta hizkuntzen kudeaketari balio estrategiko hori ematen, eta hizkuntza-arduradunak edo departamentuak sortzen.

Euskara, ezaugarri bereizlea

Enpresa eta entitate asko euren produktuak edota zerbitzuak euskaraz eskaintzen hasi dira, bezero/bazkide/erabiltzaile euskaldunen aurrean ezaugarri bereizleak eta bezeroen nahietara egokituagoak eskaintzeko asmoz. Izan ere, bertako hizkuntza kontuan hartzea



izan daiteke lehiakideengandik bereizteko eta produktu/zerbitzuari balio gehiago emateko modua.

Tokian tokiko ezaugarriak barneratzea

Entitate bat lur batean, komunitate batean, herri batean dago kokatuta. Eta toki horrek giza geografia konkretu bat du, kultur geografia berezi bat, geografia linguistiko bat. Eta entitatek ezin du bere jarduna zoru hori kontuan hartu gabe garatu, berdin Euskal Herrian nahiz Txinan egon. Tokian tokiko ezaugarriak ezagutu eta barneratu behar ditu, ez baita eragile isolatu bat. Entitateak gizarteko beste aktore eta erakunde batzuekin daude harremanetan eta ehun sozial horretan integratu behar dute arrakastaz jarduteko. Herriko kirol elkartean euskarak berebiziko garrantzia izango du, herriko ume eta gazte askok edo gehienek euskara izango baitute beraien hizkuntza.

Hizkuntza da, besteak beste, sustraitze-prozesu horretan kontuan hartu beharreko elementu bat. Bertakoa izan nahiz ez, bertako edo gertutasun irudia emateko, garrantzitsua da entitateek herrialde horretako errealitate soziolinguistikoa ere kontuan hartzea.

Barne-kohesioa eta komunikazioa hobetzea

Hizkuntzen kudeaketari esker komunikazioa, motibazioa, kohesioa, identifikazioa... lantzen dira. Hortaz, entitateei kolektibo inplikatu eta sendo bat garatzeko aukera zabaltzen zaie, bazkideari, erabiltzaileari, bezeroari bere hizkuntzan egiteko aukera ematen diona.

Prozesuak eta funtzionamendua hobetzea

Hizkuntzen kudeaketak entitateen barruko prozesuak eta funtzionamendua hobetzen ere laguntzen du, besteak beste, pertsonekin lotutakoak. Planean harrera-protokoloa, trebakuntza, kontratazio eta barne-promozioetarako politika eta beste hainbat alor lantzen dira eta, hortaz, horiek optimizatzeko aukera ematen ditu. Kontratazioen kasuan, askotan lanpostu bakoitzerako hizkuntza-gaitasuna zehazten da, eta hori entitatearen (enpresa, establezimendu, elkarte) beharretara egokitutako pertsona konpetenteak aukeratzeko tresna oso baliagarria da.

Entitateen irudia

Irudien aroan bizi gara, eta gizartean proiektatzen duen irudiaren araberakoa izan ohi da entitate baten izena eta onarpen soziala ere. Euskara kontuan duten entitateek honako irudia zabal dezakete:

- Gizarte hobe baten alde dagoen entitatearen irudia, ingurunearekiko konpromisoa duen entitatearen irudia (entitate askok parte hartzen dute, adibidez, emakumeen berdintasuneko gaietan). Bertakoa babestea munduko ondarea babesteko modua da. Enpresen kasuan, irabazi ekonomikoez gain, beste kezka batzuk ere badituela adierazten du.
- Balio demokratiko eta etikoak errespetatzen dituen entitatearen irudia. Gizarte demokratiko batean herritarrek euren eskubide eta betebeharrak dituzte, eta horiek lege bidez ere araututa daude. Hizkuntzari bagagozkio, hizkuntza-eskubideak Espainiako Konstituzioan, EAE eta Nafarroako hainbat legetan eta horiek garatzeko dekretuetan ere jasotzen dira; eta Hizkuntza Eskubideen Protokoloa ere gauzatu zen. Entitateei, hortaz, herritarren, langileen eta bezeroen



hizkuntza-eskubideak errespetatu eta babestea ere badagokie, eta ez soilik legeak horrela jasotzen duelako, duten gizarte-erantzukizunarekin eta etika sozialarekin koherentzian jarduteko baizik.

- Etorkizunari begirako entitatearen irudia: belaunaldi berriengan konfiantza duela esan nahi du, eta honekin batera, etorkizuna aurreikusteko ahalmena ere baduela.

ARGUDIOEN ZERRENDA

ENTITATEAREN KANPO-IKUSPEGIA

1. Lege-markoa

Araudia betetzeak bezeroen/bazkideen/erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak betetzea ekarriko luke eta haien gogobetetzea.

2. Balio erantsia eta produktu eta zerbitzuen salmenta

Euskara entitatearen kudeaketan txertatzeak merkatu-aukerak handi ditzake. Produktuei eta zerbitzuei balio erantsia eman diezaieke, eta entitatearekiko identifikazioa eta atxikimendua sendotu dezake. Lehia komertziala norberaren aldera makurtzeko aukera izan daiteke.

3. Gizarte-erantzukizuna

Entitateen gizarte-erantzukizunetik hizkuntzarekiko gizarte-erantzukizunera pasa behar dugu. Entitateak euskarara hurbiltzea ez da, soilik, beraiek egiten duten hautu bat edo eskubide bat, hori baino haratago doa: entitateak bertako komunitatearen ekosistema osoaren (tartean hizkuntza) garapen jasangarri eta harmonikoa bermatzeko erantzukizun eta ardura soziala dute.

4. Inguruarekin erroturiko entitatea

Herritarrak, erabiltzaileak edo bezeroak hurbiltasuna eta identifikazioa bilatzen ditu bere aisialdian, erosketan edota zerbitzu-eskaintzetan, eta bere identitate-elementuekin bat egiten duten produktu/zerbitzuekin sentituko da erosoan. Eta Euskal Herriko bereizgarri nagusietakoa, gure identitate-elementuetako bat, euskara dugu. Euskara, beraz, abantaila bilaka daiteke.

5. Euskara irudia/markaren elementu

Entitatearen irudia hobetzeko bide izan daiteke; adibidez elkartearen, erakundearen, establezimenduaren edo enpresaren “markaren” elementu bihurtuta.

6. Zerbitzuaren kalitatea

Bazkidea, erabiltzailea edo eroslea erosoan sentitzen den hizkuntzan aritzeko aukera ematea kalitatezko zerbitzua eskaintzea da.

Salmenta-prozesuetan eta zerbitzu-eskaintzetan harremanak giltzarri izan ohi dira, eskaintzen dugun produktu eta zerbitzuaren arabera, eta harreman horiek hizkuntza batean izan ohi dira. Erabiltzaileak edo erosleak ez du produktu edo zerbitzu estandarizatu eta uniformerik nahi, pertsonalizatua baizik; zergatik jokatu modu uniformeaz hizkuntzarekin? Zergatik ez pertsonalizatu hizkuntza ere? Hizkuntzak, azken batean,



erabiltzaile eta bezeroaren, eta elkartearen, erakundearen edo enpresaren arteko zubiak eraikitzen laguntzen du.

7. Aldaketetara egokitzeko gaitasuna. Berrikuntza.

Gizarte-arazoak ez dira berdinak duela 50 urte edo gaur egun, eta elkarrekin, establezimenduek, enpresek eta erakundeek adi begiratu behar diote bilakaera horri eta garai bakoitzeko gizartea eta erakundeko kideak kezkatzen dituen gaiekin konektatu, eta haiei aurre egiten lagundu. Bazkideek, herritarrek, langileek... euskararen erabileraren inguruan duten kezka erantzuteko modu bat da euskara erabiltzeko aukerak handitzeko estrategiak abian jartzea.

BARRUKO IKUSPEGIA

8. Langileen/kideen gogobetetzea.

Gero eta gehiago dira ikasketa guztiak euskaraz egin dituzten pertsonak; euskararen “masa kritikoa” gero eta handiagoa da. Euskaraz dakiten lagunei (enpresan, elkarteetan, administrazioan...) euskaraz (lan) egiteko aukera eskaini beharko liekete entitateek. Haien gogoia asetuta, motibazioa eta entitatearekiko atxikimendua areagotu egingo da; eta ondorioz, entitatearen barne- eta kanpo-kalitatea ere handituko lirake.

9. Entitatearen barne-koheretza.

Hiztun komunitate ezberdinei begira, hizkuntza-plangintzek getoak edo talde itxiak sor ditzakeela argudiatu izan da. Elkarrekin, enpresak, erakunde publikoak..., ordea, gizartearen beraren ispiu dira. Irtenbidea ez da, hortaz, gatazka saihestea hiztun komunitate baten existentzia ikusezin bilakatuz. Bakoitza bera denetik bestearekin harremanean jarri ahal izatea baizik, elkar errespetatuz, ulertuz eta aberastuz. Askatasun eta berdintasun espazioak eraikiko ditugu horrela:

- Euskal hiztunari bere nortasuna garatzen lagunduko dio eta nortasun horretan eroso sentitzen, babestua eta taldean. Motibazio horrek gusturago aritzen lagunduko dio.
- Euskara ulertzen duenak aukera izango du modu mailakatuan euskara erabiltzen hasteko
- Erdal hiztunari aukera eman beharko litzaioke aukera euskararen mundua gertuagotik ezagutzeko eta horrekin aberasteko, bereari uko egin gabe. Eta bizi den lurrean, gizartearen, hobeto integratzen lagunduko dio. Baina euskara ez dakien hori aske izango da mundu berri horretarako jauzia eman nahi duen edo ez erabakitzeke.

10. Euskara ikasteko egindako ahaleginari etekina ateratzea.

Euskal gizarteak ahalegin handia egin du hizkuntza-gaitasuna handitzeko: hezkuntzan D eredua ezartzea, administrazioan langileen euskalduntzea, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea... Hortaz, badagokigu esfortzu horri erantzutea, hezkuntza-eremutik at euskara erabiltzeko bideak erraztea eta euskaraz hitz egin nahi duen horri ateak zabaltzea.



11. Euskara erabili nahi dutenei aukera ematea eta euskara ulertzen dutenek, aldi berean, beren euskara-maila hobetzea.

Euskara ulertu baina erabiltzen ez dutenei aukera eskaintzei die elkarrizketa “asimetrikoen” bitartez, pixkanaka euskaraz gehiago eta hobeto egiteko, eta aldi berean, euskaraz egin nahi duten solaskideei euskaraz egiteko.

12. Euskaraz hitz egiteko zailtasuna dutenei abagunea eskaintzea euskara-maila hobetzeko.

Euskara-maila hobetuta, aukera asko zabal daitezke, bai lan-merkatuan, bai lagunartean, bai familian, baita gizarte-mailan ere.



LEGE-MARKOIA

Araudiari dagokionez, komenigarria iruditu zaigu argitzea zein den hizkuntzen inguruko lege-markoia; entitateek ere beraien gutxieneko betebeharrak zein diren jakin dezaten.

13. 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

- Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
- Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.
- Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

14. Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua:

- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herriaren gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- Komunitate Autonomoko Erakunde komunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.
- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

15. EAEko Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA, euskararen erabilpena arautzekoa. 5. artikulua:

- Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.
- Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:
- Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.
- Edozein bileratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

16. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuak erredaktatutako Erabiltzaileen eta Kontsumitzaileen Estatutuaren Legea:

- Erabiltzaile eta kontsumitzaile guztiek kontsumoari zein ondasun, produktu edo zerbitzuen erabilerari buruzko informazioa berezko hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute.
- Autonomia Erkidegoaren lurraldeetan ari diren enpresa eta establezimenduak bi hizkuntza ofizialekin atzitzeko prestatuak egon behar dute.

Lege horren garapena da, uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa. Bertan, hainbat hizkuntza-betekizun ezartzen dira, establezimendu handiek eta izaera orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateek bete beharrekoak.



17.13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa:

9. artikuluan ezartzen du gaztelera dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskarak ere izanen duela hizkuntza ofiziala izatera Nafarroako eremu euskaldunetan

Legearen helburutzat honako hauek daude ezarrita 1. artikuluan:

1. Herritarrek euskara erabili eta erabiltzeko eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztu.
2. Euskararen berreskurapena eta garapena babestu, bere erabilera sustatzeko bideak ezarriz.
3. Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideak jarraituz, betiere errealitate soziolinguistikoaren arabera.

18. Euskarari Buruzko Foru Legea eta hori garatzen duten arauak

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan (ondoren beste Foru Lege batzuk aldaketak egin dituzte).
- 9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena.
- 103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

19. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta

- Eremu urriko hizkuntzak babesteko ekimenak beharrezkoak direla aldarrikatzen du.
- Bizitza Publikoan eta pribatuan gutxiengoaren hizkuntzak ahoz eta idatziz erabiltzea sustatzea eta erraztea.
- Eremu urriko hizkuntzen alde hartutako neurri bereziak ez dira hizkuntza hedatuenen hiztunenenganako diskriminazio-ekintzak.



BIBLIOGRAFIA

EZAGUTZAREN CLUSTERRA. 2005. "Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak".

<http://www.soziolinguistika.eus/node/1847>

"Erdaldunak eta euskara planak", Elias Zumalde, 2006-2007.

<https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Elias-Zumalde.pdf>

Elefantea ikus. Patxi Saez.

<http://www.booktegi.eus/liburua/125/elefantea-ikusi-patxi-saez-beloki>

Lan-mundua euskalduntzeko adierazpena. Kontseilua. 2013

<http://kontseilua.eus/app/uploads/2015/09/Lan-mundua-euskalduntzeko-adierazpena.pdf>

Euskararen mozkinak. Jon Fernandez. Berria.

<https://www.berria.eus/paperekoa/2000/002/001/2019-04-07/euskararen-mozkinak.htm>